

JARDUN

Banakako jarduera plana

SARRERA	2
1. HELBURUAK.....	3
2. APLIKAZIO EREMUA.....	3
3. LANALDI OSOKO IRAKASLE-IKERTZAILEEN JARDUERA AKADEMIKOEN BANAKETA.....	4
4. IRAKATS AHALMENAK	5
IAGd – Irakats Ahalmen Gordina	5
IAGb = Irakats Ahalmen Garbia	5
UIA = Urteko Irakats Ahalmena.....	6
5. IRAKATS LANA.....	7
6. IRAKASKUNTZA BANAKETA SAIL BAKOITZEAN	8
7. GESTIORAKO INFORMATIKA SISTEMA	9
I. ERANSKINA: JARDUN GEHIGARRI GISA KONTUAN HARTZEN DIREN JARDUERAK.....	10
II. ERANSKINA: URTEKO IRAKATS LAN GISA KONTUAN HARTZEN DIREN JARDUERAK	19
III. ERANSKINA: GERORA AITORTURIKO IRAKATS LANA	20
IV. ERANSKINA: XEDAPEN IRAGANKORRAK.....	23
V. ERANSKINA: UIAren KALKULUAREN ADIBIDEAK	25
VI. ERANSKINA: JARDUN PLANAREN APLIKAZIOA IRAKASLE-IKERTZAILE MOTA BAKOITZEAN	26

SARRERA

Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoak (USLO) modu nabarmenean aldatu du irakasle-ikertzaileen irakats lanaldien esparrua, bai funtzionarioena bai lan kontratudunena, eta unibertsitateak behartu ditu lanaldi araubideak egokitzera, 2024-2025 ikasturte hasieratik aplikatzeko, bosgarren xedapen iragankorrean (aldi baterako kontratua duten lan kontratudunak) eta zazpigarrenean (irakasle elkartuak) jasotako salbuespenekin.

Irakasle-ikertzaile funtzionarioei dagokienez, USLOren 75. artikulua 2. atalaren arabera, lanaldi osoa duten unibertsitateko irakasleek gehienez 240 ordu eta gutxienez 120 ordu izango dituzte ikasturte bakoitzeko urteko lanaldiaren barruan irakats lanetarako. Unibertsitateak tarte hori aldatu ahal izango du, honako hauek lortzeko:

a) Mendeko pertsonen zaintzaren ondorioz emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak orekatzea.

b) Irakats lanak bateragarri egitea kide bakarreko gobernu ardurekin eta unibertsitatearentzat interesa duten proiektuetako erantzukizunekin, Estatutuek ezarritako moduan.

c) Enplegatu publikoen interesak ordezkatzeko dituzten irakasleen zereginak ahalbidetzea.

USLOren 75. artikulua ere dio agindutako jarduera akademikoak jasoko direla urteko banakako jarduera planetan, plan horiek errespetatu egingo dituztela irakasle funtzionarioen garapen profesionala, aukera berdintasuna eta emaitzen berdintasuna (75.3), eta aurreratzen du ere (75.4) arautu egingo dela irakasle-ikertzaile funtzionarioen lanaldiaren araubide orokorra unibertsitateko irakasle-ikertzaileen Estatutuan.

Lan kontratua duten irakasle-ikertzaileen lanaldiari dagokionez, hiru modutan arautzen du USLOk:

a) Alde batetik, (77.4) erreferentzia eginez oro har 75. artikulua ezarritakoari.

b) Bestetik, espezifikoki araututa lan kontratudun irakasleen zenbait modalitate (irakasle laguntzaile doktoreak, 78; irakasle elkartuak, 79; ordezeko irakasleak, 80; etab.).

c) Azkenik, honako hau ezarriz: lege organikoa indarrean sartzean aldi baterako kontratua duten irakasle-ikertzaileek egoera berean jarraituko dute, kontratua amaitu arte, eta aplikatzen jarraituko dira kontratua egin zitzaizkion indarrean zeuden kontratu modalitate bakoitzaren arau espezifikoak.

Bestetik, UPV/EHUren Estatutuen 25.2 artikulua 2. atalaren arabera: ***“Gobernu Kontseiluak zehaztuko ditu irakaskuntzaren alorreko betekizunak eta eskolak esleitzeko irizpide orokorrak eta, beharrezkoa izanez gero, ikerketaren alorreko betekizunak. Kontuan hartuko ditu, horretarako, irakasleen arduraldiak eta izendapen edo kontratuetan beren-beregi jaso ahal izango diren betebeharrak. Edonola ere, legeria orokorrean eta autonomikoan xedatutakoa beteko da beti. Gobernu Kontseiluak, halaber, irakasleek lanaldian zehar aurrera eramanez ahal izango dituzten beste jardueri buruzko irizpideak zehaztuko ditu.”***

Horiek horrela, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluari dagokio arautegi bat onartzea, banakako jarduera planen baldintzak arautuko dituena. 2012ko eta 2015eko Jardun Akademikoaren Planen (JAP) ordezkari eta 2024/25 ikasturte hasieran aplikatuko da. Beraz, arautegi honek (**JARDUN**) ezartzen du nola zehaztu irakasle-ikertzaileen irakats obligazioak ikasturte bakoitzean.

1. HELBURUAK

JARDUNen helburu nagusia da USLOra egokitutako dokumentu batean biltzea irakasle-ikertzaileen banakako jarduera planek ezarritako baldintzak.

Kontuan izanik aurreko esperientziak (batik bat Jardun Akademikoaren Planak eta irakaslan banatzeko Erregelamenduak), oso garrantzitsua da irakasle-ikertzaileek jakitea zeintzuk diren beren ahalmen eta obligazio akademikoak, eta, aplikatzekoa izanez gero, zer jarduerak alda ditzaketen ikasturtean zehar eman beharreko eskola orduak, UPV/EHUren helburu estrategikoekin bat etortzeagatik.

JARDUNen bidez, modulatu egin daiteke irakasle-ikertzaileen irakats ahalmena, aintzat harturik lege esparrua, unibertsitatearen helburu estrategikoak eta unibertsitatearen baliabideak mugatzen dituen aurrekontu muga. Dokumentu hau idaztean, kontuan hartu dira zehatz-mehatz hiru gai horiek, eta kontuan hartu beharko dira ere aurrerantzean egin litezkeen aldaketetan.

2. APLIKAZIO EREMUA

Proposamen hau saiatu da barne hartzen UPV/EHUko irakasle-ikertzaile guztien kasuistika, bai eta soilik irakasleak edo soilik ikertzaileak direnena ere. Hala ere, **arau batzuk soilik aplikatuko zaizkie lanaldi osoko irakasle-ikertzaile doktoreei**; hau da, araudiaren arabera edo bitarteko moduan lanpostuen zerrendako plaza batean lanaldi osoz dauden eta baldintza jakin batzuk betetzen dituzten irakasle-ikertzaileei.

Honako hauek dira USLOk aipatzen dituen irakasle-ikertzaileen figurak:

- Unibertsitateko Irakasleen Kidegoetako irakasleak / Irakasle-ikertzaile funtzionarioak
- Irakasle-ikertzaile lan kontratudunak
 - o Aldi baterakoak ez diren irakasle-ikertzaile lan kontratudunak
 - o Aldi baterako irakasle-ikertzaileak, jarraitzeko bokazioarekin
 - Irakasle laguntzaile doktoreak
 - Irakasle elkartuak
 - o Aldi baterako irakasle-ikertzaile iragankorrak
 - Ordezko irakasleak
 - Irakasle emerituak
 - Irakasle bisitariak
 - Itzal handiko irakasleak
 - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legean (ekainaren 1ekoa, 14/2011) jasotako figurak.

Horiekin batera, aurretik datozen beste kontratu figura batzuk daude, iraungitze bidean. UPV/EHUren kasuan:

- Unibertsitateko edo unibertsitate eskolako irakasle kolaboratzaileak



Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

- Irakasle atxikiak
- Bitarteko lan kontratuko irakasleak
- Irakasle laguntzaileak
- SHEE-IVEF irakasleak

3. LANALDI OSOKO IRAKASLE-IKERTZAILEEN JARDUERA AKADEMIKOEN BANAKETA

Lanaldi osoko irakasle-ikertzaileek urteko lanaldiaren zati bat (200 eta 300 ordu urtean) erabiliko dute **oinarrizko gestio zereginetan**, ezinbestekoak unibertsitateko sail, ikastegi, zerbitzu eta egituren funtzionamendu egokirako. Besteak beste:

- Sailen, institutuen, ikastegien... bilerak.
- Sailletako, ikastegietako... batzordeen koordinazioa eta batzordekide izateak dakartzan zereginak.
- Eskabideak betetzea eta txostenak egitea.
- Irakasgaietan, moduluetan, ikasturtean edo tituluetan egin beharreko oinarrizko koordinazio lanak egitea.
- Irakaskuntza gidak eguneratzea/egokitzea.

Gainera, ezinbestekotzat jotzen da lanaldi osoko irakasle-ikertzaileek lanaldiaren beste zati bat (300 eta 400 ordu artean) erabiltzea **prestakuntza eta eguneratze lanetan**, beharrezkoak irakasleen ezagutzak eta trebetasunak mantentzeko. Besteak beste:

- Ikastaroetara, kongresuetara eta batzarretara joatea.
- Informazioa bilatzea, liburuak eta artikulak irakurtzea.
- Irakaskuntza materialak egokitzea.
- Komunikazioak batzarretan edo jardunaldietan.
- Ikertaldean jardueretan parte hartzea.

Bestetik, oro har, irakasle-ikertzaile hauek 250 ordu eskaini behar dizkiete **oinarrizko irakaskuntza eta ikerketa jardueri, tutoretzak barne**, eta beste 550 ordu, beste **ikerketa eta transferentzia lan** batzuei.

Ez badira egiten gestio, prestakuntza edo irakaskuntza eta ikerketako oinarrizko jarduera horiek, dagokion organoak (sailak, institutuak, ikastegiak) txosten bat egingo du, eta organo eskudunak, hala badagokio, informazio espedientea ireki ahal izango du. Txosten negatiboa egiteko erabiliko diren irizpide orientagarrien artean, honako hauek aipa daitezke:

- Ez parte hartzea sailaren, arloaren edo irakasgaiaren jardueren % 85ean.
- Uko egitea sailaren zuzendaritzak agindutako zereginen: irakasgaiaren koordinazioa, arloko batzordea, plazen epaimahaiak, poltsen batzordeak, erreklamazioen batzordeak, ...

Kontuan izanik ordu horiek guztiak, lanaldi osoko irakasle-ikertzaileek 1.300 ordu inguru erabili behar dituzte zuzeneko irakaskuntzarekin bat ez datorren zeregin multzo batean. Horregatik guztiagatik, **oro har eta bat etorri USLOn ezarritakoarekin, 240 ordu gordetzen dira ikasturte berean egin**

beharreko eskola jarduerarako (eskola orduak ikasgelan, laborategian, mintegian edo kanpoko nahitaezko praktiken, practicumaren edo jarduera dualaren tutoretzan), eta 120 ordu/ikasturte-ra murriz daiteke lanaldi hori, baldin eta UPV/EHUren estrategiarekin bat datozen lan gehigarriak egiten badira gestioan, irakaskuntzan, ikerketan edo transferentzian.

USLOk irakasleen lanaldiak ordutan adierazten baditu ere, **irakaskuntza kreditua** hartuko da unitatetzat dokumentu honen zati handi batean. Oro har, lanaldi osoko irakasle-ikertzaileentzat, 24 kreditu izango ditu ikasturte osoko irakaskuntza lanaldiak. Beraz, baliokidetasuna eginez, irakasleak 10 eskola ordu egin behar ditu ECTS kreditu bakoitzeko. Asteko orduen eta kredituen arteko korrespondentzia kalkulatzeko, kontuan hatzen dira 15 eskola asteko bi lauhileko, irailaren 1etik maiatzaren 31ra. Praktikan, biribiltze bat egin ohi denez, aurretik aipatutakoak esan nahi du oro har zertxobait txikiagoa izango dela benetan emandako eskola orduen kopurua USLOk ezarritako mugak baino (jaiegunak eta beste gorabehera batzuk deskontatuta).

4. IRAKATS AHALMENAK

Irakats ahalmenek adierazten dituzte irakasleen irakats obligazioak edo lanaldiak, kreditutan, eta ikasturte bakoitzeko ordu kopuruarekin erlazionatzen dira, baliokidetasun honen arabera:

1 irakaskuntza kreditu --> 10 orduko eskola jarduera ikasle talde batekin --> Guztira, ikasleen 25 orduko lana

Hiru motatako irakats ahalmenak daude:

- IAGd = Irakats Ahalmen Gordina. USLOk ezarri moduan, oro har 24 kreditu lanaldi osoko irakasleentzat.
- IAGb = Irakats Ahalmen Garbia. Zuzeneko murrizketak kentzearen emaitza.
- UIA = Urteko Irakats Ahalmena. Gerora aitorturiko irakats lana eta, hala badagokio, JARDUN gehigarrien aitortza kentzearen emaitza. Edozein kasutan, balio minimoa IAGb/2 izango da.

IAGd – Irakats Ahalmen Gordina

USLOren 75.2 artikulua eta aurreko paragrafoan aipatutakoaren arabera, oro har lanaldi osoko irakasleen hasierako irakats ahalmena 240 ordu/ikasturte da (edo 24 kreditu).

Lanaldi partzialeko irakasleen kasuan, ahalmena izango da kontratuaren arabera:

$$\text{IAGd} = (\text{asteko ordu kopurua, kontratuaren arabera}) * (30 \text{ eskola aste}) / (10 \text{ ordu/kreditu})$$

Salbuespenak:

- Ahalmen hau mugatuta dago 18 kreditura irakasle laguntzaile doktoreen eta unibertsitate ospitaleei loturiko irakasleen kasuan.
- Aldi baterakoak ez diren ikertzaile doktoreen kasuan, ahalmena 12 kreditukoa da.

IAGb = Irakats Ahalmen Garbia

Kasu jakin batzuetan eta Zuzeneko Murrizketen (ZM) kontzeptuaren bidez, irakats ahalmen gordina txikitu egiten da irakats ahalmen garbiaren baliora arte:

$\text{IAGb} = \text{IAGd} - \text{ZM}$. Honako hauek dira zuzeneko murrizketak aplikatzen diren kasuak (USLOren 75.2 artikulua):

- Bost egunetik gorako baja eskola aldian aldi baterako ezintasunagatik, eta murrizketari loturiko lizentziak eta baimenak.
- Kargu akademikoa betetzeko edo lan sindikala egiteko murrizketak.
- Erantzukizun bat duten zereginak unibertsitatearentzat interesa duten proiektuetan (ERC...), Estatutuek zehaztutako moduan eta dagokion erabakiak hala jasoz gero.
- Mendeko pertsonen zaintzaren ondorioz emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak orekatzeko murrizketak, dagokion erabakiaren bidez.

Kalkuluak egitean, eskola alditzat hartzen da irailaren 1etik maiatzaren 31rako epea.

UIA = Urteko Irakats Ahalmena

Urteko Irakats Ahalmenak (UIA) adierazten du zer irakats obligazio dituen (kreditutan) irakasle-ikertzaile batek ikasturte osoan edo, aldi baterako irakasleen kasuan, dagokion kontratazio aldian.

USLOren 75.2 artikulua arabera, lanaldi osoko irakasleek ordu kopuru jakin bat eskaini behar diote ikasturte berean eskola jarduerari. Kopuru horren kalkuluan, azkenean emandako kredituek egon behar dute IAGb maximo baten eta IAGb/2 minimo baten artean.

Sail baten jarduera osorako, UIAk adierazten du kreditutan zer baliabide dituen aurre egiteko urteko irakats lanari (UIL).

Beraz, UIA kalkulatzeko, zenbatu egin behar dira JARDUN gehigarriengatik murrizketak (JM) eta gerora aitorturiko irakats lana (GAI). Lanaldi osoko irakasle-ikertzaile doktoreen kasuan (baldin eta sailaren edo ikastegiaren aurkako txostenik ez badute eta sailak bere gain har badezake haien irakaskuntza lana), kontuan hartuko dira UPV/EHUren estrategiarekin lerrokatutako lan gehigarriak (JM), honako arlo hauetan:

- a) Ikerketa eta transferentzia (IT), l. eranskinean jasotako irizpideen arabera, baldin eta gutxienez ikerketako edo transferentziako seiurteko bat aitortu bazaie irakasle-ikertzaileei. Haren balio maximo **efektiboa** sei kreditu izango da.
- b) Gestioa eta irakaskuntza lan gehigarriak (GI), l. eranskinean jasotako irizpideen arabera, baldin eta irakasle-ikertzaileek ebaluazio positibo bat lortu badute Docentiaz programan. Haren balio maximo **efektiboa** sei kreditu izango da.

UIA murrizten duten JARDUN murrizketen guztizko batura IAGb/3 izango da gehienez. Hau da:

$$\text{Hasierako}_{JM} = IT_M + GI_M$$

$$\text{Dena dela, } JM_{\text{efektiboa}} \leq IAGb/3$$

$$\text{Beraz, } JM = \min [IAGb/3; (IT_M + GI_M)]$$

Helburua ez da zehatz-mehatz neurtzea UPV/EHUko lanaldi osoko irakasle-ikertzaileen jarduera guzti-guztiak; aldiz, urteko (ikasturteko) irakats obligazioetan eginiko murrizketen bidez aitortu nahi dira UPV/EHUren Plan Estrategikoaren helburuak betetzeko eta unibertsitatearen ebaluaziorako kanpoko adierazleak hobetzeko eginiko jarduerak. l. eranskinean jaso dira murrizketa hauek egiteko aukera ematen duten jarduerak.


Gerora aitorturiko irakats lanak (GAI) adierazten du ikasturte batean aitortu beharreko kredituak aurreko ikasturteetan eginiko zuzendaritza edo tutoretza lanengatik. UIAn duen eragina IAGb/3 baliora mugatuko da.

USLOren arabera:

$$UIA = \max [IAGb/2; (IAGb - JM - GAI)]$$

Formula hori honela ere adieraz daiteke, hiru erregelatan oinarrituta:

1. Irakasle-ikertzaile guztiek gutxienez beren IAGb-ren erdiaren baliokidea den ordu kopurua erabili behar dute ikasturteko eskoletan (120 ordu, oro har).
2. Irakasle-ikertzaile guztiei aitortuko zaizkie, gerora aitorturiko irakats lanaren (GAI) kontzeptuaren barruan, tesiak, GRALak eta MALak zuzentzeagatik aurreko ikasturteetan lortutako kredituak. Irakats obligazioak murrizteari dagokionez, gehienez IAGb/3 aitortuko da efektiboki, eta 1. erregela betetzea izango da baldintza beti.
3. JARDUN murrizketak egingo zaizkien irakasle-ikertzaileei espedientean aitortuko zaizkie murrizketa horiek. Irakats obligazioak murrizteari dagokionez, gehienez IAGb/3 aitortuko da efektiboki, eta 1. erregela betetzea izango da baldintza beti.



V. eranskinean adibide batzuk ikus daitezke, aipatutako kontzeptuak argitze aldera.

5. IRAKATS LANA

Irakats lana (IL) da irakasle-ikertzaileek ikasturtean **arauz** egin behar dituzten irakaskuntza jardueren multzoa. Ikasturtea hasi aurreko plangintza fasean, enkargu bati dagokio: hau da, irakasle batek bere gain hartu beharreko irakaskuntza lanari. Aldiz, ikasturtea amaitu bada, emandako irakaskuntzari dagokio (ziurtagarria). Nolanahi ere, bi osagai ditu (**IL = UIL + GAI**):

- UIL (Urteko Irakats Lana): eskola jarduera (ikaskelan, laborategian, mintegian edo kanpoko nahitaezko praktiken, practicumaren edo jarduera dualaren tutoretza), ikasturtean egin edo inputatu beharrekoa UPV/EHUKo gradu edo master ofizialetan edo parekagarriak diren beste ikasketa ofizialetan. II. eranskinak azaltzen du nola zenbatu urteko irakaskuntza jarduerak.
- GAI (Gerora Aitorturiko Irakats Lana): irakaskuntza geroratua, irakaskuntza eman eta bi ikasturtera kontabilizatzen dena, doktorego tesiak eta master edo gradu amaierako lanak zuzentzeari, edo UPV/EHUKo ikasketa ofizialetako borondatezko kanpoko praktiken tutoretzari dagokiona. III. eranskinean ikus daiteke GAI mota bakoitza zenbatzeko modua. UIA murrizten duen gerora aitorturiko irakats lanaren guztizko batura IAGb/3 izango da gehienez. Hau da:

$$\text{Hasierako_GAI} = \text{tesi GAI} + \text{GRAL GAI} + \text{MAL GAI} + \text{praktikak_GAI}$$


Dena dela, $GAI_efektiboa \leq IAGb/3$

Beraz, $GAI = \min [IAGb/3; (tesi\ GAI + GRAL\ GAI + MAL\ GAI + praktikak_GAI)]$

Horrenbestez, irakasleen ikasturteko jardun, betetze edo okupazio indize bat defini daiteke, UIL/UIA ratio gisa. Hau da, ikasturtean irakasleak bere gain hartutako irakaskuntzaren eta ikasturte horri dagozkion irakats obligazioen edo ahalmenen arteko erlazioa.

Jardun indizea batekotik hurbil egongo da kasu gehienetan, haren azpitik oro har, gerora sortutako egoerei aurre egiteko, nahiz eta batekotik gorako balioak ere izan ditzakeen:

- Irakasle-ikertzaileek hala erabakitzen dutenean beren borondatez (adibidez, irakaskuntzan lagundu nahi duten doktorego aurrekoen -21. art.- eta doktorego ondokoen -22. art.- kasuan).
- Gerora sortutako egoeretan, hurrengo ikasturteetan konpentsatu beharreko neurri puntual gisa.



6. IRAKASKUNTZA BANAKETA SAIL BAKOITZEAN

Honako hauek dira kontuan hartu beharreko datu nagusiak sail bakoitzean urteko irakats lana banatzeko orduan:

- Saileko kide bakoitzaren UIA (Urteko Irakats Ahalmena)
- Saileko kideen multzo osoaren UIA
- Sail osoak bere gain hartu beharreko UIL (Urteko Irakats Lana)

Banaketaren helburua da urteko irakats lana esleitzea saileko kide bakoitzari. Honela:

- Saileko irakasle-ikertzaileen UIL batura sailaren UILrekin bat etorriko da.
- Saileko kideen UIL/UIA ratioa homogeneoa izango da.
- Sailaren UIL balioa sailaren UIA baino handiagoa bada, gainkarga hori konpentsatuko da urte anitzeko plangintza baten bidez. Hori ezinezkoa bada, saiaturiko da irakaskuntzaren zati bat

kideko sail baten esku uzten edo, hori ere ezinezkoa bada, irakats lana murrizten, Irakaskuntza Esleitzeko Arautegiak (EHAA, 2021/02/03) ezarritako lehentasunen arabera.

Sailaren jardun indizeak (Saila_UIL/Saila_UIA) okupazio maila adierazten du, eta kalkulatzeko da irakats obligazioak dituzten saileko kide guztien irakats ahalmenak eta lanak batuta.

7. GESTIORAKO INFORMATIKA SISTEMA

UPV/EHUren informatika sistemak irakasle-ikertzaile guztien egoera jasotzen du: lehenik eta behin, irakasle-ikertzaileen irakats ahalmena (IAGd, IAGb, UIA); bigarrenik, sailean eginiko esleipenaren ondoren, irakats lana (IL). Irakasle-ikertzaile bakoitzak bere datuak kontsultatu ahal izango ditu: ahalmen gordina, zuzeneko murrizketak eta JARDUN murrizketak, gerora aitorturiko irakats lana, eta ikasturterako edo urtean urteko irakats ahalmen edo obligazioak (UIA).

Gainera, aukera izango du akatsak zuzentzea eskatzeko (dagokion zerbitzuak ofizioz zuzendu beharrekoak), noiznahi, eta jasotako datuei buruzko alegazioak egiteko, horretarako ezarritako epean. Alegazioen kasuan, JARDUN batzordearen ardura izango da alegazio fasean sor litezkeen gorabeherak konpontzea (Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea izango da batzordeburua eta kide hauek izango ditu gutxienez: Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak izendatutako bi pertsona, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak izendatutako pertsona bat, Transferentziaren arloko Errektoreordetzak izendatutako beste bat, Euskararen arloko Errektoreordetzak izendatutako beste bat eta Gobernu Kontseiluak hautatutako irakasle-ikertzaileen bi ordezkari).

Informatika sistemak aukera emango die ikastegiei eta sailei ikastegiko edo saileko kreditu poltsaren barruan erabiliko dituzten itemak zehazteko. Gainera, ikastegiak eta sailak arduratuko dira ikasturte bakoitzean item horiek merezi dituzten irakasle-ikertzaileen kredituak grabatzeaz, kontuan hartuz betiere ikasturte horretan ikastegi edo sail osoari esleitutako kredituen gehieneko muga.

Azkenik, informatika sistemak aukera emango dio sailari ikusteko, kide guztien irakats ahalmenez eta irakats lanez gain, irakats obligaziorik gabeko irakasleen egoera eta bitartekoek bete gabeko plaza hutsak.

I. ERANSKINA: JARDUN GEHIGARRI GISA KONTUAN HARTZEN DIREN JARDUERAK

Eranskin honetan aipatzen dira JARDUN gehigarri gisa kredituak aitortzeko aukera ematen duten jarduerak. Honako hauek dira aplikazio orokorreko irizpideak:

- Irakasle-ikertzaileei ez zaie inolako JARDUN murrizketarik (JM) aplikatuko baldin eta aurreko ikasturtean gestio, prestakuntza edo irakaskuntza eta ikerketari loturiko oinarritzko jardueraren bat ez betetzeari buruzko txostena jaso badute.
- Ezin izango dira ikasturte bateko jarduerengatik aitorturiko kredituak beste ikasturte bateko kreditutzat hartu.
- Berariaz kontrakorik adierazi ezean, kredituak bi ikasturte geroago aitortuko dira, jarduera egin dela egiaztatzeko eta, batez ere, sailek irakaslana denbora nahikoarekin planifikatu ahal izateko.¹
- Ikerketa edo hezkuntza proiektuei edo lan zientifikoak argitaratzeari lotutako kredituei dagokienez, urte naturalak hartuko dira kontuan.²
- Merezimendu bakoitza kontzeptu bakar batean bakarrik ebaluatuko da.
- Bai graduako eta graduondoko irakats jarduera guztiek, bai haien gestioarekin loturikoek eta JARDUNen aipatuek, UPV/EHUren programa ofizialen barruan egon behar dute.

Beheko tauletan ikus daitezke **irakaskuntza kreditu baliokideak banaka esleitzeko** aukera ematen duten jarduerak. Gainera, jarduera ebaluatzeko ardura duen zerbitzua aipatzen da.

1 Adibidez, 2024/25 ikasturteko irakaskuntza planifikatzeko, 2024ko otsailean/martxoan aitortuko dira jarduerengatiko kredituak. Horretarako, oinarri hartuko dira 2022/23 ikasturtean eginiko jarduerak eta une horretako (2024ko otsaila) irakasle-ikertzaileen sailkapena.

2 Adibidez, 2024/25 ikasturteko irakaskuntza planifikatzeko, 2024ko otsailean aitortuko dira jarduera hauengatiko kredituak, kontuan izanik 2022. urte osoan eginikoak.

1. taula: Irakaskuntza kreditu baliokideak ematea ikerketan eta transferentzian eginiko lan gehigarriengatik

BALDINTZA: Kredituak emateko ikerketan eta transferentzian eginiko lan gehigarriengatik, ezinbestekoa da, lanaldi osoko irakasle-ikertzaile doktorea izateaz gain, gutxienez ikerketa edo transferentzia seiurteko bat izatea (baldintza horretatik salbuetsiko da kontratuaren mota edo iraupena dela-eta seiurtekoa eskatu ezin izan duen kolektiboa; adibidez, bi urte baino gutxiagoko antzintasuna duten irakasle laguntzaileen kasuan) eta UPV/EHU filiazioa modu egokian adieraztea. Europako edo nazioarteko proiektuen eta Eusko Jaurlaritzaren eta UPV/EHUren ikertalde finkatuen kasuan, gutxienez hiru hilabeteko iraupena izan beharko dute urte naturalean. Gainera, dagozkion itemetan, irakasle-ikertzaileek instituzionalki parte hartu behar dute, eta UPV/EHUK zuzenean jaso behar ditu funtsak.

MUGAK: Gehienez sei kreditu eman daitezke ikerketan eta transferentzian eginiko lan gehigarriengatik, eta IAGb-ren (Irakaskuntza Ahalmen Garbia) 1/3 izango dira gehienez ikerketa/transferentzia eta gestioa/irakaskuntza jarduera guztiengatik emandako kredituak.

	Jarduera	Kredituak	Ebaluatzailea
IT1	Ikerketa edo transferentzia seiurtekoak	<ul style="list-style-type: none"> • 2 kreditu, 2 seiurteko izanez gero (azkena, bizia); irakasle atxikien kasuan, nahikoa izango da seiurteko bat. • 4 kreditu, 3 seiurteko izanez gero (azkena, bizia) • 6 kreditu, 4 seiurteko izanez gero (azkena, bizia) • 6 kreditu, 5 seiurteko edo gehiago izanez gero (biziak ala ez) <p>Urtebeteko gabealdia mantenduko da azken seiurteko bizia.</p>	Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza



IT2	<p>Zuzeneko murrizketa gisa zenbatu gabeko Europako proiektuak</p> <p><i>Europar Batasuneko Esparru Programako lankidetzako proiektu koordinatuen kasuan, erreferentzia aldiaren Batzordearen gonbidapen gutuna eskuratu duten proiektuak ere sartuko dira, betiere proiektua emanda badago.</i></p> <p><i>COST ekintzetan parte hartzea baloratuko da, UPV/EHUK ekintza orokorraren koordinazio rola betetzen duenean: "grant holder". Beste rol batzuekin parte hartzea (local organiser, member) ez da kontuan hartuko programa honetan.</i></p>	<ul style="list-style-type: none">• Lankidetzako proiektu koordinatuak:• 3 kreditu, lankidetzako proiektu koordinatuaren koordinatzailea. 2 kreditu, gainerako ikertzaile nagusiak (IN). Kideak: 1 kreditu ikertzaile bakoitzeko (gehienez 8 kreditu). Parte hartzaile gehiago egonez gero, kredituak guztien artean banatuko dira (alde batera utzirik IN). 25.000 €/proiektu-tik beherako Akitania-Euskadi-Nafarroa deialdiak edo beste edozein Europako proiektu<ul style="list-style-type: none">• 1 kreditu, IN• Kideak: 0,5 kreditu ikertzaile bakoitzeko (gehienez 2 kreditu). Parte hartzaile gehiago egonez gero, kredituak guztien artean banatuko dira.	Ikerketaren arloko Errektoreordetza
IT3	Lidergoaren Ikerketa Zientifikoa eta Teknikoko eta Berrikuntzako Estatuko Planeko proiektuetan	<ul style="list-style-type: none">• 1 kreditu proiektu bakoitzeko INrentzat (banatu beharrekoak, bat baino gehiago izanez gero)	Ikerketaren arloko Errektoreordetza
IT4	Aparteko artikulua JCR kategorian (lehenengo zentila).	<ul style="list-style-type: none">• 6 kreditu, UPV/EHUko egileen artean banatzekoak (gehienez 3 kreditu egile bakoitzeko).• 8 kreditu Nature edo Science aldizkarietako argitalpen bakoitzeko (aldizkari nagusiak bakarrik), UPV/EHUko egileen artean banatzekoak.	Ikerketaren arloko Errektoreordetza
IT5	Zerrendetan agertzea (Highly Cited Researchers , Stanford zerrenda) edo aparteko sariak (Ezagutzaren Mugak BBVA Saria, Ikerketako, Literaturako edo Arte Plastikoetako sari nazionalak, Euskadiko Ikerketa Saria, Gure Arte Saria, Eusko Ikaskuntza/Laboral Kutxaren Humanitateak Saria).	<ul style="list-style-type: none">• 4 kreditu, HCR zerrendan agertzeagatik.• 2 kreditu, Stanford zerrendan agertzeagatik.• 2 kreditu, aparteko sari bakoitzeko.	Zientzia eta Gizarte Garapeneren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza



IT6	Eusko Jaurlaritzaren (GIC) edo UPV/EHUren (GIU) ikertalde finkatuko IN izatea	<ul style="list-style-type: none">• GIC: 2 kreditu, taldekideen artean banatzekoak (bestela, INrentzat). 3 kreditu, <u>diziplinartekoa</u> izanez gero (gutxienez 2 jakintza arlo).• GIU: 1,5 kreditu, taldekideen artean banatzekoak (bestela, INrentzat). 2 kreditu, <u>diziplinartekoa</u> izanez gero (gutxienez 2 jakintza arlo).	Ikerketaren arloko Errektoreordetza
IT7	Zientzia Astea, Ikertzaileen Europako Gaua	<ul style="list-style-type: none">• 0,5 kreditu, koordinazioagatik.	Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza
IT8	Kolaborazio nabarmena hedabideetan eta dibulgazio lana, edo erakusketa garrantzitsu bateko artista edo komisarioa izatea	<ul style="list-style-type: none">• Gehienez 1 kreditu	Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza
IT9	Lizentziak ustiapenean	Lehenengo asmatzaileari emango zaizkio kredituak, urteko sarreraren arabera: <ul style="list-style-type: none">• 5.000 €-tik gorakoak izanez gero, 0,25 kreditu• 15.000 €-tik gorakoak izanez gero, 0,5 kreditu• 30.000 €-tik gorakoak izanez gero, 1 kreditu• 50.000 €-tik gorakoak izanez gero, 2 kreditu Lehenengo asmatzailea ez bada, kredituen 1/4	Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza
IT10	Unibertsitate-Enpresa-Gizarte gelak	<ul style="list-style-type: none">• Gelak [ez bada ordainsaririk jasotzen]:<ul style="list-style-type: none">○ 1 kreditu, zuzendaritzagatik; 1,25 kreditu, gizarte izaerakoa izanez gero (ApD)○ 0,2 kreditu, gelan laguntzaile akreditatua izateagatik; 0,3 kreditu, gizarte izaerakoa izanez gero (ApD)	Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza



IT11	Spin-off edo Start-up enpresak sortzea [lehenengo 3 urteak]	<ul style="list-style-type: none">• 2 kreditu, enpresaren sortzaileen artean banatzekoak	Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza
-------------	--	--	--



2. taula: Irakaskuntza kreditu baliokideak ematea gestioan eta irakaskuntzarekin loturiko zereginetan eginiko lan gehigarriengatik

BALDINTZA: Kredituak emateko gestioan eta irakaskuntzan eginiko lan gehigarriengatik, ezinbestekoa da, lanaldi osoko irakasle-ikertzaile doktorea izateaz gain, ebaluazio positibo bat izatea Docentiaz programan (baldintza horretatik salbuetsiko da kontratuaren mota edo iraupena dela-eta Docentiaz programara aurkezteko aukera izan ez duen kolektiboa; adibidez, 5 urte baino gutxiagoko antzintasuna duten irakasle atxikiek).

MUGAK: Gehienez sei kreditu eman daitezke gestioan eta irakaskuntzan eginiko lan gehigarriengatik, eta IAGb-ren (Irakaskuntza Ahalmen Garbia) 1/3 izango dira gehienez ikerketa/transferentzia eta gestioa/irakaskuntza jardura guztiengatik emandako kredituak.

	Jarduera	Kredituak	Ebaluatzailea
G11	Kreditu poltsa ikastegi bakoitzeko	<ul style="list-style-type: none"> Ikastegiak definitu eta gauzatu beharrekoa, G11-Kreditu poltsa ikastegi bakoitzeko atalaren arabera 	UPV/EHU ikastegiak
G12	Saileko gestio lanak	<ul style="list-style-type: none"> Sailak aitortzak banatuko ditu jardura hauengatik: <ul style="list-style-type: none"> 2 kreditu, Saileko Atal Ofizial bakoitza koordinatzeagatik 2 kreditu, gutxienez 10 irakasle-ikertzaile dituen jakintza arlo bakoitzagatik (aitortzeko arloaren koordinazioa eta poltsen batzordeetan edo erreklamazioen batzordean parte hartzea). 	Sailaren Zuzendaritza
G13	Lidergoa unibertsitatean inpaktua duten genero berdintasun ekintzetan	<ul style="list-style-type: none"> Gehienez 1 kreditu 	Idazkaritza Nagusia (Berdintasunerako Zuzendaritza)
G14	Bikaintasun proiektuen koordinazioa (Campus Bizia Lab eta Gaztenpatia), ONDU eta Erasmus + (EMJMD, EMDM, etab.)	<ul style="list-style-type: none"> 2 kreditu, koordinatzailearentzat 	Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta



			Transferentziaren arloko Errektoreordetza
GI5	Aldaketa lanpostuen zerrendako plazan, ingeles profila gehituta	<ul style="list-style-type: none">• 2 kreditu, gutxienez 6 kreditu ingelesez ematen diren ikasturteak, lanpostuen zerrendako plazan profila aldatu eta hurrengo lau ikasturteetan. Baldintzak bete ondorengo ikasturtean aplikatuko dira.	Irakasle-ikertzaileen eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza
GI6	Euskararekin zerikusia duten inpaktu ekintzak eta argitalpen akademikoak euskaraz	<ul style="list-style-type: none">• Gehienez 2 kreditu	Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza
GI7	Diseinatzaile rola ikasleentzako X kredituko online ikastaro estrategikoan (Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetzaren irizpidearen arabera)	<ul style="list-style-type: none">• Xren % 50, ikastaroaren lehen urtean• Xren % 30, ikastaroaren bigarren urtean• Xren % 20, hurrengo urteetan	Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza (Campuseko Errektoreordetza)
GI8	Batzordekide izatea	<ul style="list-style-type: none">• 3 kreditu, Erreklamazioen batzordea, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza batzordea eta Unibertsitate Irakasleen batzordea• 2 kreditu, Gobernu Kontseilua eta Etika, Gradu, Graduondoko eta Euskara batzordeak• 1 kreditu, Bizikidetzeta, Berdintasun eta Estatutuak Garatzeko batzordeak	

GI1 - Kreditu poltsa ikastegi bakoitzeko

Graduak, master ofizialak eta doktoregoak emateko ardura duten ikastegiek kreditu poltsa bat izango dute, eta poltsa horren bidez kreditu baliokideak aitortuko dizkiete gestioan eta irakaskuntzan lan gehigarri jakin batzuk egingo dituzten irakasle-ikertzaileei (ikastegian duten karguari inplizituki ez dagozkion jarduerak, estrategikotzat jotzen dituztenak edo ezinbestekoak direnak ikastegien funtzionamendu egokirako). Ondoren aipatzen dira ikastegien kasuan kredituak ematen dituzten jarduera batzuk, bai eta ikastegi bakoitzaren kreditu poltsa kalkulatzeko irizpidea ere.

Kredituak emango dituzten jarduerak dira:

- Modulu/ibilbide/ikasturte/gradu koordinazioa
- Prestakuntza dualaren koordinazioa
- Ateak Zabaltzeko Egunen koordinazioa eta parte hartzea
- Berme eta kalitate batzordeetan edo berdintasun batzordean parte hartzea
- Practicum gestioa
- Unibertsitate masterren gestioa
- Ikasketa plan berriak diseinatzea edo eguneratzea
- GRAL eta MAL epaimahaietan parte hartzea
- Erasmus ikasleen tutoretza
- Etengabeko prestakuntzako ikasketen batzorde akademikoko burua edo kidea izatea (ordainsaririk jasotzen ez bada)
- ... ikastegi bakoitzak bere zerrenda osatuko du, gehienez 10 kontzeptu erabilita. Kontzeptu horien artean egon daitezke, edo ez, aurretik aipatutakoak, eta beste batzuk ere sar daitezke.

2024/25 ikasturtean, 2.500 kreditu izango ditu guztira ikastegien kreditu poltsak. Honela banatuko dira ikastegien artean:

- Doktorego Eskolari 300 kreditu dagozkie, doktorego programen eta master batzuen kudeaketan eskusiboki aritzen den ikastegi berezi izategatik (JAP zaharraren EI8 eta EI9 itemen arabera). Kreditu horiek banatuko dira UPV/EHUko doktorego programa guztien koordinatzaileen eta batzordeetako kideen artean, bai eta ikastegi horretan kokatutako masterren arduradunen eta batzordeen artean ere.
- Gainerako kredituak, formula honen arabera:
 - Kredituen % 10 berdin banatzen dira ikastegi guztien artean, tamainaren mende ez dagoen oinarrizko funtzionamenduari erantzuteko.
 - Gainerako % 75, ikastegiaren tamainaren mende dauden zereginetarako; beraz, ikasle eta titulu (graduak eta masterrak) kopuruaren arabera banatzen dira:
 - K_1 = ikastegiko ikasleak / UPV/EHUko ikasleak guztira
 - K_2 = ikastegiko tituluak / UPV/EHUko tituluak guztira
 - P = guztizkoaren % 70etik ikastegiari emandako kreditu kop.



$$P = \frac{N^{\circ} \text{ créditos a repartir} * 70}{100} * K_1 + \frac{N^{\circ} \text{ créditos a repartir} * 30}{100} * K_2$$

- % 5, Bikain ziurtagiria duten ikastegien artean. Honela: ikastegi kredituak = kredituak guztira * ikastegi puntuak / ikastegi puntuak batukaria. Non: ikastegi puntuak = 5 (oinarrizko maila), 7 (maila ertaina) edo 10 (goi maila)
- % 5, nazioartekotzea saritzeko, banatzekoak kontuan izanik jasotako ikasle kopurua (input) eta kanpora doazenak (output): ikastegi kredituak = kredituak guztira * [0,6*(input/input_guztira)+0,4*(output/output_guztira)]
- % 5, prestakuntza duala saritzeko, honela banatzekoak: ikastegi kredituak = kredituak guztira * titulu_dualak / titulu dualen_batukaria;

II. ERANSKINA: URTEKO IRAKATS LAN GISA KONTUAN HARTZEN DIREN JARDUERAK

Taulak adierazten du zenbat kreditu lor daitezkeen inputazio ikasturte berean eginiko irakaskuntza jarduerengatik.

	Jarduera	Kredituak irakaskuntza jarduerengatik	Kredituak aitortzen dituen errektoreordetz
UI1	Irakaslan UPV/EHUn emandako gradu eta unibertsitate master ofizialetan, edo parekagarriak diren UPV/EHUn beste ikasketa ofizial batzuetan	1 kreditu, 10 eskola ordurengatik % 20 gehigarria, irakasle-ikertzaileari graduko edo master profesionalizatzaileko irakats lana esleitzen zaionean berea ez den ikastegi batean (beste campus batean eta bizilekutik 40 km baino gehiagora kokatua), aldi baterako premiengatik	Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordetza
UI2	Irakasgai dualen (GRAL izan ezik), Practicumaren eta nahitaezko kanpoko praktiken tutoretza	<ul style="list-style-type: none"> Irakasgai hauen tutoretzak kredituak emango ditu, formula honen arabera: $\text{Kreditu kopurua} = F * K * A$ <p>F: 0,02, practicumaren eta nahitaezko kanpoko praktiken kasuan; 0,04, irakasgai dualen kasuan</p> <p>K: irakasgaiaren kredituak ikasketa planean</p> <p>A: tutoretzapeko ikasle kopurua</p> <p>Mugak:</p> Gehienez 6 kreditu aitor daitezke irakasgai hauengatik (irakasle-ikertzaile eta ikasturte bakoitzeko). 12 kreditu, Erizaintzako graduan. Kredituak aitortzeko, ikastegiek erabiliko dute PRACTICUM – Nahitaezko Praktiken Gestioa izeneko informatika tresna, GAUR plataformaren barruan. 	Ikastegien Zuzendaritzak eta Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza



III. ERASKINA: GERORA AITORTURIKO IRAKATS LANA

Taulak adierazten du zenbat kreditu lor daitezkeen gerora aitorturiko irakats lanagatik. Taulak adierazitakoaz gain, kontuan hartu behar da:

- Gerora aitorturiko irakats lanak urteko irakats obligazioen murrizketan duen eragina IAGb-ren (irakats ahalmen garbia) 1/3ra mugatzen da.
- Tesiak, MALak, GRALak, tutoretzak dagozkie UPV/EHUn matrikulatutako ikasleei eta UPV/EHUko doktorego, master eta gradu ofizialen barruan UPV/EHUn eginiko jardueri (defentsak).

	Jarduera	Kredituak irakaskuntza jarduerengatik	Kredituak aitortzen dituen errektoreordetz
G11	Doktorego tesiak zuzentzea (gainera, kontsulatu xedapen iragankorrek)	<ul style="list-style-type: none"> • Urte bateko irailaren 1etik hurrengo urteko abuztuaren 30era UPV/EHUn zuzendu eta defendatutako tesi bakoitzak 4 kreditu emango dizkio zuzendari taldeari (banaketa uniformeki egingo da). Kredituak uniformeki aitortuko dira defentsa egin ondorengo bigarren eta hirugarren ikasturteen artean. Kreditu gehigarri bat emango da (2 gehienez) laugarren ikasturtean, tipologia hauetako bakoitzeko: nazioarteko tesiak, euskaraz eginikoak, industria alorrekoak, GJH tematikakoak (Graduondokoaren arloko Errektoreordetzak baloratuko du), osasun alorrekoak edo hezkuntza alorrekoak. Tesiaren zuzendaritza lanean parte hartu badu zuzendaria ez den tutore batek, harentzat izango da kredituetako bat. Gainerako kredituak uniformeki banatuko dira zuzendarien artean (3 kreditu oro har, eta gehienez 5). 	Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza



	Jarduera	Kredituak irakaskuntza jarduerengatik	Kredituak aitortzen dituen errektoreordetz
G12	UPV/EHUn emandako master ofizialetako Master Amaierako Lanen (MAL) zuzendari lana.	<p>MALak zuzentzeagatik:</p> <ul style="list-style-type: none">• 0,5 kreditu, MALak 8 kreditu edo gutxiago baditu• 0,75 kreditu, MALak 8 kreditu baino gehiago eta 12 kreditu baino gutxiago baditu• 1 kreditu, MALak 12 kreditu edo gehiago baditu <p>Mugak:</p> <ul style="list-style-type: none">• MALa UPV/EHUn defendatu beharko da• Kredituak aitortuko dira bi ikasturte geroago, lana kalifikatu bada.• Gehienez 6 kreditu aitortuko zaizkio irakasle-ikertzaile bakoitzari, ikasturte batean.• (0,25) kreditu gehigarria, i3 ereduaren oinarritutako, kanpoko erakundeen erronei lotutako edo diziplina anitzeko MALagatik (Graduaren arloko Errektoreordetzak baloratuko du).	Masterren arduradunak eta Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza
G13	UPV/EHUn defendatutako Gradu Amaierako Lanen (GRAL) eta Karrera Amaierako Proiektuen (KAP) zuzendari lana.	<p>GRAL/KAPak zuzentzeagatik:</p> <ul style="list-style-type: none">• 0,25 kreditu, GRAL/KAPak 8 kreditu edo gutxiago baditu• 0,37 kreditu, GRAL/KAPak 8 kreditu baino gehiago eta 12 kreditu baino gutxiago baditu• 0,5 kreditu, GRAL/KAPak 12 kreditu edo gehiago baditu <p>Mugak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Kredituak aitortuko dira bi ikasturte geroago, lana kalifikatu bada.	Ikastegien Zuzendaritzak eta Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza



		<ul style="list-style-type: none">• Gehienez 6 kreditu aitortuko zaizkio irakasle-ikertzaile bakoitzari, ikasturte batean.• (0,25) kreditu gehigarria, i3 erduan oinarritutako, kanpoko erakundeen erronkei lotutako edo diziplina anitzeko GRALagatik (Graduaren arloko Errektoreordetzak baloratuko du).	
GI4	UPV/EHUko graduen eta unibertsitate masterren irakaskuntzari lotutako borondatezko kanpoko praktiken tutoretza, Garapenerako Lankidetzako jardueren barruan eginiko praktikak eta ERASMUS ikasleen tutoretza barne.	<ul style="list-style-type: none">• Formula hau erabiliko da borondatezko kanpoko praktikak zuzentzeagatik eman beharreko kredituak kalkulatzeko: Kreditu kopurua = $0,05 * N + 0,01 * H / 25$ N: tutoretzapeko ikasle kopurua; H: tutorizatutako ordu kopurua.• Gehienez 3 kreditu emango zaizkio irakasle-ikertzaile bakoitzari, ikasturte batean, zeregin honengatik.• ERASMUS ikasleen kasuan, tutore bakar bat egongo da ikastegi bakoitzeko.	Campus Errektoreordetza eta Ikastegi Zuzendaritzak (PRAKTIGES)

IV. ERANSKINA: XEDAPEN IRAGANKORRAK

Aldi baterako, 2024/25 eta 2025/26 ikasturteetan:

- Gestioa/irakaskuntza blokean JARDUN murrizketak lortzeko, ez da ezinbestekoa izango ebaluazio positiboa lortzea Docentiaz programan.
- Nolanahi ere, dokumentu honetan ezarritako gehieneko eta gutxieneko mugak aplikatuko dira.
- Kredituen aitortza mantenduko da 2023/24 ikasturteko Jardun Akademikoaren Planaren “E16- Ebaluazio positiboa Docentiaz programan azken bost deialdietan” itemean.

	Jarduera	Kredituak	Zerbitzu
E16	Ebaluazio positiboa Docentiaz programan azken bost deialdietan	<ul style="list-style-type: none"> • 2 kreditu, ebaluazioa «oso bikain» izanez gero • 1 kreditu, ebaluazioa «oso ondo» edo «bikain» izanez gero 	Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko Errektoreordetza



- Kredituen aitortza mantenduko da 2023/24 ikasturteko Jardun Akademikoaren Planaren "OI2- Doktorego tesiak zuzentzea" itemean. Beraz, 2023/24 ikasturtean defendatutako tesiak izango dira OI2 itema aplikatuko zaien azkenak.

	Jarduera	Kredituak	Zerbitzu
OI2	Doktorego tesiak zuzentzea	<ul style="list-style-type: none">• Urte bateko irailaren 1etik hurrengo urteko abuztuaren 30era UPV/EHUn zuzendu eta defendatutako tesi bakoitzak 8 kreditu emango dizkio zuzendari taldeari (banaketa uniformeki egingo da). Kredituak uniformeki aitortuko dira defentsa egin ondorengo bigarren eta hirugarren ikasturteen artean. Nazioarteko tesien kasuan, 10 kreditu emango dira.• Tesiaren zuzendaritza lanean parte hartu badu zuzendaria ez den tutore batek, harentzat izango da kredituetako bat. Gainerako kredituak uniformeki banatuko dira zuzendarien artean (7 kreditu oro har, eta 9 nazioarteko tesien kasuan). <p>Gehienez 8 kreditu emango zaizkio irakasle bakoitzari ikasturte batean kontzeptu honen barruan.</p> <p>Oharra: 2024/25 ikasturtean aitortuko dira 2022/23 ikasturtean defendatutako tesien kredituak eta 2021/22 ikasturtean defendatutako tesietatik gelditzen direnak. 2025/26 ikasturtean aitortuko dira 2023/24 ikasturtean defendatutako tesien kredituak eta 2022/23 ikasturtean defendatutako tesietatik gelditzen direnak.</p>	Graduondokoren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza

V. ERANSKINA: UIAren KALKULUAREN ADIBIDEAK

Lehenengo kasua: 24 UIA kreditu dituen irakasle titularra. 8 kreditu dagozkio ikerketan eta transferentzian; 4 kreditu, gestioan eta irakaskuntzan. Gainera, 8 kreditu ditu gerora aitorturiko irakats lanagatik. Kalkulatu gelditzen zaizkion urteko irakats obligazioak.

Lan gehigarri maximoa IT blokean = **6** (asetuta, 8 metatzen baititu)

GAI max = $IAGb/3 = 8$ (justu maximora iristen da)

JM max = $IAGb/3 = 8$ (asetuta, 6+4 metatzen baititu)

UIA = $\max [12, (24-8-8)] =$ **urteko irakaskuntzako 12 kreditu (hau da, USLOk ezartzen duen gutxienekoa)**

Bigarren kasua: Ikerketan eta transferentzian 3 kreditu eta gestioan eta irakaskuntzan 4 kreditu dituen irakasle laguntzaile doktorea (ILD). Gainera, 8 kreditu ditu gerora aitorturiko irakats lanagatik. Kalkulatu gelditzen zaizkion urteko irakats obligazioak.

ILD bati 18 kreditu dagozkio eta ez zaizkio aplikatzen JARDUN gehigarriak. Beraz:

GAI max = $IAGb/3 = 6$ (asetuta, egiazta daitezkeen 8 kreditu metatzen baititu)

JM = 0

UIA = $\max [9, (18-0-6)] =$ **urteko irakaskuntzako 12 kreditu**

VI. ERANSKINA: JARDUN PLANAREN APLIKAZIOA IRAKASLE-IKERTZAILE MOTA BAKOITZEAN

JARDUN aplikatzen zaio irakasle-ikertzaile multzo osoari, maila desberdinean bada ere. Hona hemen irakasle-ikertzaileen figuren zerrenda eta JARDUNekin duten lotura.

JARDUN murrizketak izan ditzaketen irakasle-ikertzaileak

Honako hauek dira ikerketa/transferentzian eta gestioa/irakaskuntzan eginiko lan gehigarriengatik JARDUN murrizketak izan ditzaketen irakasle-ikertzaileak.

- Unibertsitateko Irakasleen Kidegoetako irakasleak / Irakasle-ikertzaile funtzionarioak
- Aldi baterakoak ez diren irakasle-ikertzaile lan kontratudunak
- Irakasle atxikiak (USLOren aurreko kontratua)
- Aldi baterako irakasleak, irakasle atxiki edo laguntzaile doktore plaza bat gehieneko denboran bete ondoren eta aldi baterakoa ez den irakasle-ikertzaile figura batean akredituta egonik, hurrengo LEP batean plaza iraunkor bat lortzeko esperoan daudenak.

Baldin eta lanaldi osoko doktoreak badira eta baldintza espezifikoak betetzen badituzte.

Talde honen barruan sartzen dira aurreko baldintzak betetzen dituzten lotutako irakasle klinikoak.

JARDUN murrizketak izan ezin ditzaketen irakasle-ikertzaileak

Honako hauek dira JARDUN murrizketarik ez duten irakasle-ikertzaileak.

- Lanaldi partzialeko irakasle-ikertzaileak, irakaskuntzakoa eskusiboki den kontratua izateagatik.
- Irakasle-ikertzaile ez-doktoreak
- Irakasle laguntzaile doktoreak, babes espezifikoak izateagatik.
- Arautegiaren arabera beren plazan ez dauden irakasleak.

Lanaldi partzialeko irakasleak

Lanaldi partzialeko irakasleen kasuan (aldi baterakoak ez diren lanaldi partzialeko irakasleak, irakasle elkartuak eta USLOren 80.1 artikulua arabera edo iraungitze bidean dauden aurreko kontratuen arabera kontratatutako ordezkari irakasleak), soilik irakaskuntza lana egin behar dute: hau da, eskolak ematea eta ikasleen arreta tutoretza orduetan.

Irakasle elkartuak

Kontratuaren helburua da ezagutza eta esperientzia profesionala eskaintzea unibertsitateari, esperientzia hori esanguratsua den gaitan, irakaskuntzaren bidez. Zeregin horien barruan ez dira sartzen gestioko eta koordinazioko egiturazko funtzioak. Irakasle elkartuek gehienez 120 eskola ordu izango dituzte ikasturteko.

Aurreko paragrafoko lanaldia ez zaie aplikatuko apirilaren 25eko 14/1986 Legearen 105.2 artikulua onduz plaza eta izendapena lortu duten irakasle elkartuei, eta agintari eskudunek arautuko dituzte haien kontratuen iraupenaren berezitasunak.

USLO ordezeko irakasleak

Kontratuaren barruan sartuko da USLOren 75. artikulua ezarritako irakats jarduera (eskola orduak eta tutoretzak), eta ezin izango du gainditu ordezkaturako irakaslearen jarduera, ezta zabaldu ere beste era bateko unibertsitate jardueretara kontratazio unibertsitatean; hala nola ikerketa, edo gestioko eta koordinazioko egiturazko eginkizunak, eginkizun horiek zuzeneko loturarik ez badute irakaskuntza jarduerarekin (USLOren 80.1 art.).

80.2 artikulua araberaren kontratatutako ordezeko irakasleei (irakaskuntza eta ikerketa lanak egiten dituzte 240 orduko irakats ahalmenarekin ikasturte bakoitzeko) ezin zaie JARDUN IT GI murrizketarik aitortu (bai, ordea, gerora aitorturiko irakats lan gisa zenbatu), hurrengo LEP batean plaza iraunkor bat lortzeko esperoan dauden irakasleei izan ezik, irakasle atxiki edo laguntzaile doktore plaza bat gehieneko denboran bete badute eta aldi baterakoak ez diren irakasle-ikertzaileen figura baterako akreditatuta badaude.